

# AITA PATXI GONDRA, PASIoTARRA

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*



## Gure jatorria

Beti izango da jakinkarria: gure sorburua eta gure elburua. Elburua dogu gure jardun ta ekintza guztietan gure egitaraua. Elburuak erakusten dauku zer dan eta zertarako dan giza bizia. Gai au gogoz aztertu, ausnartu eta bizi ezkeru gure bizitzari bultzada eraginkorra emongo dautsagu. Arazo onetan noberaren buruaren zurtasuna eragin eta erabili bear dogu. Geu izango gara gure buruaren maixu eraginkorrak. Aita Patxi gai ontan berebiziko maixua ta erdua dogu. Gaztetatik asita bere bizi osoan, bere izaera eta bizieran argi ta garbi erakusten dauku zer eta zertarako dan bere kristau elburua. Aita Patxi Arrieta bizkaian jaioa dogu 1910an kristau familia onbera baten. Bere gurasoak Buenabentura ta Benita dira ta bederatzi seme alaba azi zituen. Antxe bai egoan bigun-bigun Kristau azia Patxiren biotz-barnean.

## Pasiotarra.

Arrigarria da Patxiren aurtzaroko kristau fedea. Eta gorengo maillara jokatu gura dau eta aukera zintzoa Jesusen alde egingo dau. Gu maiteen nork izan gaitu? Kristo gure Jaunak. Eta zintzo ta zoli esango dau: "Nik Pasiotarra izan gura dot neure anai Eusebioren antzera" Esan eta izan. Gabirian, Tafallan eta Deuston eliz ikastaroak egingo ditu. Eta Angoston 1927 urtean Pasiotarren eliz eskeintzak eginik, 1935 urtean apaizgintza artzen dau. 1937 urtean Eusko gudarien kapellau izanik danak begirunez esaten dautse Aita Patxi. 1936an Gernikako bonba erasoaldi garratza, iru ordukoa, kamioi baten zaurituak sendatzen, gaxoak autortzen, Meza santua ospatzen, gure Jauna emoten, botikak banatzen, jantziak eta janariak monja ta ongillen aldetik. Gauza arrigarria: "Aita Patxi erasoaldi onetan zauri bat be bari geratu zan"

## Atxilotua.

Ekaiñaren 13an, atxilotua izanik Cardeña'ra eroan dabe. Geroago Madrid aldeko gudu-tokira. Larrialdi gogor ontan Aita Patxik errukizko ekintza goragarriak egingo ditu kristau fede eta biotz-zabaltasunaren eragiñez. Errukizko ekintza bi: **a)** Cardeñan, soldadu batek, gurasoa bera, gudu taldetik iges eginda eriotz epaia dauko. Aita Patxik gudu agintarien aurrean bere bizia eskeintzen dau guraso orren orde. Arrigarritzko oparia! Bata zein bestea bizirik geratu ziran. **b)** Madrid aldeko gerratean, soldadu bat, gurasoa, eriotzara zigortua izan da. Aita Patxik ori jakinik, bere bizia eskeintzen dau aren orde. Biok, zorionez, bizirik geratu ziran. Madrid aldeko gudu gogorrean guztien alde ta serbitzari dago, kristau zein komunistak izan. Otoitz eta autortzak egiñez, meza santua ospatuz, sendagaiak banatuz, jantziak eta janariak esku zabalez oparituz

## Kristoren gurutze ta nekaldia bizi.

Jesukristo gure Jaunak aita Patxi Kalbario mendian jarri dau eta bere gurutze ta Nekaldiaren espiritua ta bizitasuna damotso. Egiaz aita Patxik bere burua ukatu eta menperatzen dau bere biziera opari oparo bat eginez Jainkoaren maitasunez eta urko lagunak, Kristau zein komunistak serbitzeko ekiñaren ekiñez. Urko lagunekin onbera eta apatza izanez, bere buruaz gogor ta zo-



rrotza da. Bere elburua da Jainkoa ta gizakia maitatu ta guztien zerbitzari zolia izan. “Omnia vincit amor” **“maitasunak dana garaitzen dau”** Illaren lenengo ostiraletan arduratzen da gaixoak aitortu eta gure Jauna emoteko. Abade batek diñotso: “Mesedez ez urte etxetik onako eguraldi zaka-rragaz”. Bere erantzuna: “Arima bate gaitik jungo nintzake illargiraño”

## Mixiolari ibiltaria.

Bai, mixiolari “autostop” izan da gure errietan eta errosario santua otoiztu. Sarri askotan gure baserrietako bidetan basatza loietan sandaliakin oñak urraturik doakigu gaixoi elizakoak emotera. “Au santu ez bada, ez dago santurik” esaten da. “Aita Patxi Kristau bizieran jarraibide berezia da bere bizi eta ekintzetan, batez be Eukaristian, meza santuan, eta bere bizitza latza-ren gurutz bidean Kristoren nekaldiaz bat egiñik” (A. Añoberos) Bere elburua da: **“al-tius, citius, fortius, gorago, ariñago ta indarsuago” Ez bakarrik elburua, izaera eta biziera baño,**